



## ERANTZUKIZUNeko AITORPENA JARDUERA SAILKATUA. JARRAIBIDEAK

### 448/2014 Foru Aginduaren II. eranskinean bai baina III. ERANSKINEAN JASO GABEKO JARDUERA SAILKATUAK, Erantzukizuneko aitortpena behar dutenak.

- A) **Gauzen eta materialen biltegiak**, haien azalera eraikia 500 m<sup>2</sup>-tik gorakoa denean eta 1000 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa denean.
- B) **Merkataritzako saltokiak**, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko **12/2012** Legean aurreikusitako kasuetan.
- C) Eraikinetan kokatuta dauden zerbitzuetako establezimendu hauek:
- Administrazio jarduerak**, haien azalera eraikia 1.000 m<sup>2</sup>-tik gorakoa denean edo 2000 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa denean.
  - Kultur eta erlijio jarduerak**, haien azalera eraikia 500 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa denean.
  - Aurrekoen pareko ez diren **zerbitzu orokorretako** beste jarduera batzuk, haien azalera eraikia 1.000 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa denean.
- D) **Konponketa tailerrak**, haien azalera erabilgarria 1.000 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa denean; betiere, ez dira bizitegiaren erabilera duten eraikinetan kokatuko.

Erregelamendu honen aplikazio eremutik kanpo daude ondoren aipatzen diren lan osagarrietako tailerrak edo antzeko beste batzuk; betiere, beheko solairuan edo sotoan kokatuta badaude, haien potentzia mekaniko instalatua 5 Kw artekoa bada edo/eta haien azalera erabilgarria 200 m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa bada::

- a) Eraikuntzako lan osagarrietako tailerrak, igeltserotza, beirategi, elektrizitate, iturgintza, berokuntza eta aire egokitukoak.
  - b) Erlojuen tailerrak, urregintza, zilargintza, bitxigintza, bisuteria, optika, ortopedia eta protesikoak.
  - c) Jantzigintzako tailerrak, jostundegiak, larrudendak, puntuzko arropakoak, kapela-dendak eta uhal-dendak.
  - d) Etxeko tresna elektrikoak konpontzeko tailerrak, irrati-telefoniakoak, telebistakoak, bulegoko makineriakoak eta josteko makinetakoak.
- E) **Antenak** eta irrati-elektronikako jabari publikoa erabiltzen duten **instalazioak eta azpiegiturak**, telekomunikazioen arloko oinarritzko araudiaren aplikazio eremuan sartuak.

### KASU GUZTIETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- "JARDUERA SAILKATUAREN ERANTZUKIZUNeko AITORPENA"ren eredu behar bezala beteta eta sinatuta.
- Nortasunari dagokion dokumentazioa: NANaren fotokopia eta/edo ordezkartza frogatzen duena.
- Jarduera sailkatuaren proiektua, agiri bidez ikus-onetsia, dokumentazioa 448/2014 Foru Aginduaren 27. artikuluan eta haren ordezkari bakoitzean ematen den arauan ezarritakora egokitua. Adierazi behar dira Nafarroako Gobernu Proiektuen Kontsignak emandako proiektuaren zerbakiak eta sarbide gakoak, agiri bidezko ikus-onespena duen proiektu teknikorako. Gainera, kopia bat eman behar da paperean, eta beste 4 formatu digitalean.
- Tekniko eskudunak idatzitako ziurtagiria, Udalak normalizatutako "Jarduera sailkatuen ziurtagiria" ereduaren arabera, frogatzen duena jarduerak betetzen dituela ingurumeneko eta hirigintzako araudiak, baita aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.
- Proiektatutako obren eta instalazioen zuzendaritzarako teknikaria kontratatzearen frogagiria.
- Egintza, lan edo jarduerak behar dituen baimenak, kasu bakoitzean aplikatzeko den araudiak eskatzen dituenak.
- Tributuen autolikidazioa, eredu normalizatuaren arabera, ordaindu izanaren frogagiria dakarrena.

Gutxienez ere aipaturiko dokumentazio hori aurkeztu beharko da. Burlatako Udalak dokumentazio gehigarria eskatzen ahalko du, beharrezkoa dena aitorturiko jardueraren definizio zuzen eta osorako.